

BALIO PROPOSAMENA

Ikusmen ona izatea ez da kapritxo bat, eskubide eta behar bat baizik. Hori dela eta, gaur egun jende askori esfortzu handi bat kostatzen dio arazo hau konpontzeak, honek dituzten prezio altuen ondorioz. Halaber, beste batzuen kontzientziazio ezagatik, beharrezkoa ez den betaurrekoen gehiegizko kontsumoa gertatzen da, erabilera ona eman gabe botatzen baitituzte zakarrontzira. Horregatik, kezka honi aurre egiteko modu erraz, eskuragarri eta ekologiko bat eskaini nahi dugu.

Espainiako biztanleetatik %55ak erabiltzen ditu betaurrekoak. Profesionalak, urtero edo bi urtean behin gomendatzen dute aldatzea, baina beraien kostu altuarengatik, askorentzat hau ia ezinezkoa da, Beraz, gure helburua hauen prezioa murriztea eta betaurrekoei bigarren bizitza bat ematea da.

Espainian, betaurreko apurtu gehienak zakarrontzira botatzen dira ez dagoelako beste irtenbiderik, ondorioz hauek konponezinak izaten amaitzen dira. Beraz, alde batetik, materiala berrerabiltzea da gure asmoa, intentsio ekologiko batekin. Bestalde, hainbeste diru ordaintzeko prest ez daudenentzat, aukera ederra izango litzateke gure proiektuan parte hartzea.

Honetarako betaurreko puskatuak (adibidez, bazter bat apurtuta dutenak) edota jabearentzako erabilgarriak ez direnak aprobetxatuz, denbora batera gure salmentako produktuak izango dira. Horretarako, kalean zehar jarriko genituzke oso ezagunak izan daitezken ontzi batzuk, bertan utzi ahal izateko produktuak eta ondoren, astean behin puntu hauetatik gure lokalera ekartzeko.

Proiektu honetan jardungo dugunok, kutsaduraren eta gehiegizko prezioen kontra dauden langileak gara elkarlanean. Horrela, proiektuari hasierako hauspotzea emango diogu eta lana koordinatuko dugu profesionalki, arazo hau ekidin dadin.

Azkenik, enpresaren izenburuari dagokionez Ecolens aukeratu dugu, batik bat izen motz eta garbi bat da non garbi transmititzen du betaurreko ekologikoen ideia. Bere esanahiari dagokionez, "ECO" ekologikoa dela dio, eta "LENS" ingelesez lenteak esan nahi du.